

- Ekainak 28 -

LGBTren Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Eguna

(Lesbiana, Gay, Bisexual eta Trans)



Zer ospatzen da?





Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen (LGBT)

Harrotasunaren

Nazioarteko Eguna

Gay eta Lesbianen

Askapenerako Eguna edo Gay

Harrotasunaren Eguna izenez

ere oso ezaguna da. Egun

horretan hainbat ekitaldi

antolatzen dira gay, lesbiana,

bisexual eta transexualen

kolektiboen


berdintasuna eta tolerantzia

bultzatzeko helburuaz.

Aldarrikapenerako jai hau ekainaren 28an ospatzen da, **1969**.urteko egun horretan **“Stonewall**eneko **istiluak”** gogoarazteko (New York, AEB). Izan ere, gertaera haiek

ASKAPEN
HOMOSEXUALERAKO
MUGIMENDUAren hasiera ezarri zuten.

Egun hori ospatzeko ekitaldi desberdinak egiten dira; ohikoena izaten da ospakizunak ekainaren 28aren aurreko edo hurrengo larunbatean egitea.





Txorierriko Udalek sexu-diskriminazioaren aurkako borrokan dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.

Honakoak aldarrikatzen ditugu:

- Pertsonen duintasuna eta osotasun fisikoa, -estatuetako gobernuen legeen bidez bermatu beharrekoak biak- errespetatzea.
- Herritar guztiak errespetatzea, haien orientazio sexuala edozein dela ere.
- Lanerako eskubidea bermatzea, sexuaren ondoriozko inolako diskriminaziorik gabe.
- Espazio publikoan egindako adierazpen afektiboen ikusgarritasun publiko-soziala errespetatzea.
- Bakoitzak bere errealitate, esperientzia eta jarreratik abiatuta, jendarte anitzago, ireki eta integratzaileago baten alde lan egin dezala sustatzea, jendarte bat non orientazio sexuala ez den inorentzat oztopo izango.
- Sexualitate anitzerako bidea egitea, mitorik gabe, konparaziorik gabe, inposiziorik gabe eta sexualitate askearen –aukera eta orientazio sexualerako askatasuna barne- aurkako jokabide guztien kontra gaude.



LESBOFOBIA
TRANSFOBIA
HOMOFOBIA!
STOP

SEXU ANIZTASUNAGAT IK



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



DERIO



LARRABETZU



LEZAMA



LOIU



SONDIKA



Zamudio
Udala